

2024ko bigarren hiruhilekoan esportazioen prezioak % 1,9 igo ziren Euskal AEn

Inportazioen prezioak % 2,4 gehitu ziren

2024ko bigarren hiruhilekoan esportazioen prezioak % 1,9 igo dira 2023ko hiruhileko beraren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuz gero, ez da aldaketa esanguratsurik ikusten (% 0,0). Inportazioen prezioak, bestalde, % 2,4 igo dira urte artean, eta % 1,1 2024ko lehen hiruhilekoaren aldean.

Esportazio "energetikoen" prezioak % 10,1 igo ziren aurreko urtearen aldean, eta "ez-energetikoenak" % 1,7. Aurreko hiruhilekoaren aldean, ondasun "energetikoen" prezioak % 1,1 jaitsi dira eta "ez-energetikoenak" % 0,2 igo dira.

Inportazioen kasuan, produktu "energetikoen" prezioen indizea % 3,6 hazi zen, urte arteko tasan, eta "ez-energetikoenak" % 1,3. Aurreko hiruhilekoaren aldean, prezio "energetikoenak" % 3,0 igo dira eta "ez-energetikoenak" % 0,2 jaitsi.

Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, helburu ekonomikoaren arabera (%). 2024/II

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	0,0	1,9	1,1	2,4
Energiazko gaiak	-1,1	10,1	3,0	3,6
Energiazkoak ez diren gaiak	0,2	1,7	-0,2	1,3
Kontsumo-ondasunak	-2,5	-2,0	-0,3	6,5
Kapital-ondasunak	0,4	7,6	-1,1	2,6
Bitarteko ondasunak	0,8	1,8	1,4	1,9

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean

(t/t4) Behatutako azken hiruhileko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren aldean

Data 2024ko Irailaren 27a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Ondasunen **helburu ekonomikoaren** arabera sailkapenari jarraituz, nabarmentzekoa da aurreko urtearekiko hazkundera Kapital-Ondasunen (% 7,6), Bitarteko Ondasunen (% 1,8) eta Kontsumo-Ondasunen (%-2,0) esportazioen prezioetan. 2024ko lehen hiruhilekoaren aldean, joera bera du, baina apalagoa: Bitarteko Ondasunek % 0,8ko hazkundera izan dute, Kapital-Ondasunek % 0,4koa eta Kontsumo-Ondasunek % 2,5koa.

Analisia inportazioetara bideratuta, ikus daiteke urte arteko konparazioan hiru ondasun-motek izan dituztela hazkundera prezioetan: Kontsumo-Ondasunek % 6,5, Bitarteko Ondasunek % 1,9 eta Kapital-Ondasunen % 2,6. Aurreko hiruhilekoaren aldean, Bitarteko Ondasunen prezioak % 1,4 igo dira, eta Kontsumo- eta Kapital-Ondasunak, berriz, % 0,3 eta % 1,1 jaitsi dira, hurrenez hurren.

Esportazioen xede diren **eremu ekonomikoak** kontuan hartuta, prezioak, aurreko hiruhilekoaren aldean, igo egin ziren eremu guztietan, ELGArenak izan ezik, 0,4 jaitsi baitziren. Horrela, % 2,2 igo dira munduko gainerako herrialdeetara bideratutakoak, % 0,3 eurogunekoak eta % 0,2 EB-28koak. 2023ko bigarren hiruhilekoaren aldean, Munduko gainerakoan izandako hazkundera nabarmentzen da (% 14,9), jaitsierekin beste hiru eremuetan: Eurogunea (%-0,7), EB-28 (%-0,5) eta ELGA (%-0,1).

Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, arlo ekonomikoen arabera (%). 2024/II

	ESPORTAZIOAK		IMPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	0,0	1,9	1,1	2,4
Euro eremua	0,3	-0,7	2,5	3,5
EB-28	0,2	-0,5	2,5	3,7
ELGE	-0,4	-0,1	2,6	5,0
Munduko besteak	2,2	14,9	-1,9	-3,1

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean


(t/t4) Behatutako azken hiruhilekoko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren aldean

Data 2024ko Irailaren 27a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Inportazioei dagokienez, ia eremu geografiko guztietan igo dira prezioak aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, Munduko Gainerakoan izan ezik, non % 3,1 jaitsi baitira. Aurreko hiruhilekoaren aldean, tasak positiboak dira Eurogunean eta EB-28n (% 2,5 bi kasuetan) eta ELGAN (% 2,6), baina jaitsi egin da Munduko Gainerakoan (% 1.9).

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizearen urte-artereko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Informazio gehiago:

Eustat-Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62